Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Pepita Mindegia Irazoki

Bera, Nafarroa
(1929-2020)



Aurkibidea

Biografia



Lesakan sortu zen, Barrenetxean. Ama Berakoa zuen eta aita Lesakakoa. Zalain zokokoa zen eta bere burua beratartzat zuen.

Zintak

BRA-025

- **Proiektua**: Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lakar Iraizoz, Maite
- **Data**: 2007-09-06
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arburua Etxeberria, Patri

BRA-026

- **Proiektua**: Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lakar Iraizoz, Maite
- **Data**: 2007-09-06
- **Iraupena**: 26 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Emakume gazteak. Neskato

- **Erref**: BRA-025/001
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Emakume gazteek baserrian egiten zuten lan eta gero, batzuetan, neskato joaten ziren; beste batzuk etxean gelditzen ziren. Bera neskato joan zen. Batzuetan trapitxeren bitartez lortzen zuten neskato lana.

2. Trapitxerak

- **Erref**: BRA-025/002
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:01:32. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gerraostean gosetea zen. Trapitxerak Gipuzkoatik etortzen ziren trenean arraina eta bestelako gauzak saltzera. Beran denetarik erosten zuten: artoa, irina, eta abar. Altxapeka eramaten zuten salgaia. Berako estazioan guardia zibilak egoten zirela-eta, trapitxerak bere etxe ondoko apeaderoan gordeka sartzen ziren trenean (Pepita, haurra zela, laguntzen zien)

3. Neskato 1. Irun

- **Erref**: BRA-025/003
- **Iraupena**: 0:04:28. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:08:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Irunen neskato egon zen. Etxeko lanak egiten zituen: haurrak zaindu, merkatura joan, etxea garbitu, bazkaria egin...Dena eskuz egin behar zen: arropa garbitu, argizaria eman, sua piztu, eta abar. Izaten zituzten bi arratsalde libre astean: buelta bat ematen zuten, txurro batzuk jan eta zinera joan ziren (gallinerora hain zuzen, merkeena zelako). Beste neskato batzuekin ibiltzen zen. Berako bestetan egun batzuk libre izaten zituen, hori zen bere oporraldi bakarra.

4. Neskato 2. Soldata

- **Erref**: BRA-025/004
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:08:08. **Bukatu**: 00:09:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hasieran, Irunen, 40 duro irabazten zituen (200 pezeta), gero pixkanaka altxatu zioten soldata. Frantziara lanera joan zenean, berriz, 400 pezeta irabazten zituen. Gutxi kobratzen zuten neskatoek. Etxean bertan lo egiten zuten. Oso tratu ona izan zuen etxe guztietan.

5. Neskato 3. Donibane Lohitzune

- **Erref**: BRA-025/005
- **Iraupena**: 0:09:27. **Hasi**: 00:09:41. **Bukatu**: 00:19:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Irunetik San Juan de Luzera (Donibane Lohitzunera) joan zen, han gehiago irabazten zelako. Oso etxe handian izan zen; goizean gosaria prestatzen zuen eta etxea eta arropak garbitzen zituen, eguerdian mahaia zerbitzatzen zuen eta arratsaldean, berriz, plantxa izaten zuen. Uniformea janzten zuen. Bazkaria interina batek egiten zuen; txoferra ere bazen. Asteazken eta igande arratsaldeak libre izaten zituen; batzuetan Irunera joaten zen. Oporrak ordaintzen zizkioten. Hamahiru urte pasa zituen han.

6. Neskato 4. Paris

- **Erref**: BRA-025/006
- **Iraupena**: 0:09:42. **Hasi**: 00:19:08. **Bukatu**: 00:28:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Donibane Lohitzunetik Parisera joan zen lanera. Etxean bera zen langile bakarra: gosaria prestatzen zuen, etxea garbitu, merkatura joan, bazkaria prestatu eta gainerako lanak (plantxa, zilarra garbitu...). Han jada garbigailua zuten. Bazkalondotan ordu bat izaten zuen libre egunero eta larunbat eguerditik astelehen goizera arte. Lagunekin ibiltzen zen: denda handietara joaten ziren eta hainbat toki ikustera; igandetan, meza ondoren, apaizarekin biltzen ziren eta txurroak eta txokolatea egiten zuten parrokian. Euskaldunak eta espainolak zeuden, elkarri laguntzen zioten. Gaueko harrarretarako beti

etxean izaten zen. Parisen ez zuen koartoa nagusien pisuan, etxe zahar haietan zerbitzariek goiko pisuan zuten logela.

7. Neskato 5. Udan Niza aldera joaten zen nagusiekin

- **Erref**: BRA-025/007
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:28:50. **Bukatu**: 00:31:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Berak ez zuen inoiz arazorik izan hizkuntzarekin, poliki-poliki ikasi zuen. Beti ongi tratatu zuten. Pariskoekin udan Niza eta Montecarlo arteko herri txiki batera joaten ziren; Normandian eta Bretainian ere izan zen nagusiekin.

8. Neskato 6. Parisko logela

- **Erref**: BRA-025/009
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:31:36. **Bukatu**: 00:33:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Berak zortea izan zuen, logela ona zuen Parisen. Ohatzea, armairua, lababoa (ur bero eta hotzarekin) eta berogailua zituen. Baina baziren beste langile batzuk, Galiziatik joandakoak, ur berorik eta berogailurik ez zutenak.

9. Neskato 7. Parisko segurua

- **Erref**: BRA-025/011
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:36:14. **Bukatu**: 00:39:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Parisen bost urte egin zituen. Oporretan etortzen zen Berara: oporrak ordaintzen zizkioten, baita bidaiaren erdia eta mantenurako kantitate bat ere. Frantzian segurua izateko eskubidea zuten neskatoek, baina lehenengo bi urteetan ezin zuten muga pasa eta batzuek ez zuten nahi; beraz, segururik gabe izaten ziren batzuk eta pixka bat gehiago ordaintzen zieten. Nagusien erabakia ere izaten zen paperak egitea ala ez. Berak segurua izan zuen eta gaur egun handik pentsioa kobratzen du.

10. Hogeita bost urtez neskato

- **Erref**: BRA-025/012
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:39:27. **Bukatu**: 00:40:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hogei urtetan joan zen lehenengoz neskato eta 45 urte zituela itzuli zen etxera. Neskato joan aurretik baserrian lan egiten zuen.

11. Baserrian urik ez

- **Erref**: BRA-025/014
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:40:46. **Bukatu**: 00:41:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Baserrian ez zuten urik, errekatik eta iturritik ekartzen zuten. Argia, berriz, bazuten. Errekako ura pozalekin ekartzen zuten eta garbitzeko erabiltzen zuten. Edateko ura botijo edo pozalekin eramaten zuten

12. Eskolara oinez

- **Erref**: BRA-025/015
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:41:58. **Bukatu**: 00:42:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Eskolara oinez joaten ziren, ia lau kilometroko bidea zuten. Mutikoak Altzatera joaten ziren eta neskak mojetara Berara.

13. Eskola

- **Erref**: BRA-025/016
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:42:42. **Bukatu**: 00:45:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Eskolan haur aunitz izaten ziren eta dena erdaraz egiten zen. Mojek ez zuten jotzen. Gaizki portatzen zirenean “tranbiara” (pasaleku batera) joatera zigortzen zituzten. Etxean lan egiteko behar zituztenean, haurrak ez ziren eskolara joaten.

14. Zalain zoko, Alkaiga eta Endarlatza auzoak

- **Erref**: BRA-025/017
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:45:26. **Bukatu**: 00:47:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bera Zalain zoko auzokoa da (Lesakakoa da), baina beratarra sentitzen da. Izan ere, Zalain zokokoek Beran egiten dute bizi osoa: han bataiatu, han ikasi dotrina eta jaunartzea egin, hara joaten dira eskolara eta han lurperatzen dituzte. Lesakan, berriz, kontribuzioa ordaintzen dute. Alkaiga eta Endarlatza auzokoak antzeko egoeran bizi ziren.

15. Ez ziren mekikutara joaten. Etxeko erremedioak

- **Erref**: BRA-025/019
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:47:09. **Bukatu**: 00:49:06

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehen oso gogorrak ziren, “aizkoraz eginak” ziren. Medikutara gutxitan joaten ziren. Duela gutxi gertatutako anekdota bat kontatzen du. Haur denboran oinutsik ibiltzen ziren eta zauriren bat egiten zutenean, adibidez iltzeren bat sartzen bazitzaien oinan, amak baratxuriekin erretzen zuen olioa eta horrekin zauria garbitzen zien.

16. Oinutsik

- **Erref**: BRA-025/020
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:49:06. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehen jende aunitz ibiltzen zen oinutsik. Eskolatik etortzen zirela, euria hasten bazen, espartinak ez bustitzeko oinutsik etortzen ziren. Berara joaten zirenean ere askotan oinutsik joaten ziren eta hango etxe batean paratzen zituzten oinetakoak

17. Oinetakoak

- **Erref**: BRA-025/021
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:52:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Espartinak erabiltzen zituzten batez ere; jende guztiak ez zuen zapatarik. Bestelako oinetako batzuk nolakoak ziren azaltzen du: kalotxak (egurrezko zola zuten) eta eskalaproiak (punta bat zuten).

18. Zalain zokoko bestak

- **Erref**: BRA-025/022
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:52:04. **Bukatu**: 00:53:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zalain zokoko bestak lehenago irailaren 8an omen ziren, baina berak ez ditu ezagutu. Antzara jokoa izaten omen zen. Horri buruzko kanta baten letra zati bat aipatzen du.

19. Berako bestak. Etxea zuritu eta garbitu

- **Erref**: BRA-025/023
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:53:56. **Bukatu**: 00:55:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Berako bestetara joaten ziren. Parienteak etortzen ziren bere etxera. Bestak hasi aurretik etxea kisuarekin zuritzen zuten, ardi ilezko koltxoiak harrotzen zituzten, bokata egiten zuten maindire guztiak garbitzeko, olaskoak eta bildotsa egin bestetan jateko

20. Ohatzeak

- **Erref**: BRA-025/024
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:55:31. **Bukatu**: 00:56:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Ilezko koltxoien azpian lastaira paratzen zuten (arto zurikinekin egindako jergoia). Koltxoiaren gainean maindireak eta koltxila (ardi ilearekin ere egina)

21. Lamiak eta sorginak

- **Erref**: BRA-025/025
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:56:32. **Bukatu**: 01:00:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Erreka batean lamiak zirela esaten zen. Sorgin istorioak: bere amaren aitak, mutiko koskorra zela, mendian danbor soinuak entzun zituen eta bere osabak kasorik ez egiteko esan zion. Bere amaren amak apez bati galdetu zion ea sorginak baziren eta honek zera esan zion: “izena duen guzia badun, nor diren ez dira sinestu behar”. Ondoko etxe batean bizi zen emakume bat sorgina zela esaten zuten; honek zera esaten zion: goizetan eguzkia ateratzen zen lekura begiratzeko eta errezatzeko, horrela, berari norbaitek gaitza egin nahi baldin bazion, berari etorriko zitzaiola. Sugeen ausikiendako kredoa gibeletik aitzinera esan behar zela esaten zen

22. Sutara gatza bota

- **Erref**: BRA-025/027
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 01:01:30. **Bukatu**: 01:02:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Oilarrak gauez kukurruku egiten bazuen behar ez zen tenorean, sutara gatza bota behar zen

23. Zimiko berri

- **Erref**: BRA-025/029
- **Iraupena**: 0:00:19. **Hasi**: 01:02:52. **Bukatu**: 01:03:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Arropa estreinatzen denean zimiko berri egiten zen.

24. Zalain zokotarren eta Beratarren arteko pikea. Euskara

- **Erref**: BRA-026/002
- **Iraupena**: 0:05:44. **Hasi**: 00:00:22. **Bukatu**: 00:06:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bere ustez, zalain zokotarrei esker beratarrek dakite euskaraz gaur egun. Lehenago, beratarrek Zalain zokokoak mespretxatzen zituzten, euskaraz egiten zutelako. Eskolan, Berako haurrek ez zekiten euakaraz. “Zalain zokoktarrak, tirritarrak” esaten zieten. Zalain zokotarrei buruzko bertsoak kantatzen ditu eta autobusean gertatutako anekdota bat.

25. Lesaka eta Beraren arteko pikea

- **Erref**: BRA-026/004
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:07:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Beti izan da pikea Lesaka eta Beraren artean. Lesakarrek Berako bestetan euria egiteko kandelak pizten zituztela erraten zen.

26. Hortza sutara bota

- **Erref**: BRA-026/006
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:07:29. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hortzak erortzearekin zer esaten zuten azaltzen du: “harzak nere hortza zaharra eta ekarri berria”; hortza sutara botatzen zuten.

27. Igantzi, “Madrid chiquito”

- **Erref**: BRA-026/008
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:08:18. **Bukatu**: 00:09:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Igantzi “Madrid chiquito” dela esaten da.

28. Farola kandelarekin

- **Erref**: BRA-026/010
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:09:43. **Bukatu**: 00:10:15

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gauez argia egiteko farola kandelarekin erabiltzen zuten

29. Igande arratsaldetan zer egiten zuten

- **Erref**: BRA-026/012
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Neskatxa zelarik auzoan gelditzen ziren igande arratsaldetan, baina, gaztetan, Berara joaten ziren. Han zinera joaten ziren, baina goiz itzuli behar zuten, ilun-ezkila jotzen zuenerako etxean egon behar baitzuten. Emakumeak ez ziren ostatuetan sartzen orain bezala. Mutilekin plazan biltzen ziren, musika baitzen.

30. Ezkondu gabeko amak

- **Erref**: BRA-026/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Ezkondu gabeko amak etxean sartuta gelditzen ziren eta betirako markatua gelditzen zen. Haurra gauez bataiatzen zuten eta bastarta esaten zioten. Ama batzuk gero esposatzen ziren

31. Bedeinkapenak. San Migel

- **Erref**: BRA-026/015
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:15:04. **Bukatu**: 00:15:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
San Migel etortzen zelarik, prozesioa egiten zen eta bedeinkapenak egiten ziren. Horretaz gain, etxe batzuetara apezak joaten ziren bedeinkatzera, beren etxera ez ziren inoiz joan.

32. Urtezaharretan etxez etxe kantari

- **Erref**: BRA-026/016
- **Iraupena**: 0:06:57. **Hasi**: 00:15:57. **Bukatu**: 00:22:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Urtezaharretan etxez etxe ibiltzen ziren kantari. Koplen zati aunitz gogoratzen ditu: “Urte salve ongi etorri gabon Jainkoa...”

33. Bera eta Lesakako euskara

- **Erref**: BRA-026/018
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:24:34. **Bukatu**: 00:25:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lesaka eta Berako euskara berdina da, baina lesakarrek doinu berezia dute.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com